

MARMITAKO TXAPELKETA 2022

1. Amorebieta-Etxanoko jaietako kuadrillen arteko marmitako lehiaketa/txapelketa **larunbatean, uztailak 23**, ospatuko da herriko hainbat tokitan.
2. Herriko edozein koadrilak parte hartu ahal izango du, aurretik Zelaieta Zentroan izena ematen badu.
3. **Izen ematea astelehenetik ostiralera 8:30tik 21:30ra izango da, eta uztailaren 12an , asteartea, eguerdiko 13:00etan amaituko da.**
4. Mahai-lagunak eta banatutako mahai eta aulkien kopurua ahalik eta zehatzen aurreikusteko, eta lehiaketaren garapen egokirako, **izena ematerakoan, kuadrilla bakoitzeko kide batek AMETX txartela izan eta aurkeztu beharko du. Pertsona hori udalak mailegatutako materialaren arduraduna izango da** eta materiala ez jasotzea, ez itzultzea, edo egoera ez egokian itzultzekotan hurrengo zenbatekoen arabera ordaindu beharko ditu:

Mahaiak: Aleko prezioa..... 30 €

Aulkiak: Aleko prezioa..... 20 €

Bestelako zigorrak..... 50 €

Zigorra jarriko da honako egoera hauek gertatuz gero:

- Mahai-lagun baino askoz mahai eta aulki gehiago egonez gero.
 - Materialaren ez entregatzea orduan eta beharrezko lekuan edo materiala egoera okerrean bueltatzea.
 - Antolatzaileek banatutako tokien mugak errespetatu ezean.
 - Arautegian agertzen ez den antolatzaileek erabakitzen duten beste edozer.
5. Lehiaketako/txapelketako kuadrillei egokitu zaizkien tokiak zozketatu egingo dira. **Zozketa jendearean** egingo da Zelaietako Auditorioan, **uztailaren 19an, asteartea, eguerdiko 12:00etan**. Guneak pertsona kopuruaren arabera sailkatuko dira eta kategoria desberdinetan zozketatuko dira: A talde txikiak, B talde handiak eta C Challengeko taldeak. **Kuadrilla bakoitzak zozketan esleitutako tokia erabili beharko du derrigorrez.**
 6. Antolatzaileek hegaluzea, mahai-tresneria eta ogia BAINO EZ diete emago Challengeen parte hartuko duten kuadrillei.
 7. Mahaiak eta aulkiak **planoan agertzen den lekuan** hartu eta bueltatu beharko dira hurrengo ordutegia errespetatuz. Hartu: 10:30 - 13:00; Bueltatu: 13:00 - 19:30.
 8. Kuadrillek, antolatzaileen azalpenak kontuan hartu beharko dituzte uneoro, batez ere lapikoak entregatzeko ordutegia eta lekua.
 - **Sari banaketa 14:30etan** izango da.
 - **Lapikoak gehienez, 25 zm-ko diametroa** izan dezakete.
 9. Txapelketan/lehiaketan zehar sortu litekeen edozein arazo konpontzeko Batzorde Antolatzailea izendatuko da Amorebieta-Etxanoko udaleko bi kide eta kuadrilla antolatzaileko beste bi kideek osatuta.